

Otsailaren 11: Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna

0-11 erakusleihoak: 2025eko otsailak 3-11

Merkatari hori:

Arrasateko Udalak, Elhuyarrekin batera, gonbidatu nahi zaitu parte hartzera, udalerrian abian jarriko den "Otsailaren 11ko erakusleihoak" ekimenera.

Otsailaren 11n Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna da nazioartean, eta, hori dela eta, 2025eko otsailaren 3tik 11ra, herriko saltokiak emakume zientzialariez jantzi nahi ditugu.

2021ean hasi eta gaur arte, Euskal Herriko 600 saltoki apaindu dira emakume zientzialarien bizipenekin.

Kanpaina hau hedabideetan zabalduko da eta aipatuko da herriko zein saltokik parte hartu duten eta Euskal Herrian zenbat saltoki atxiki diren kanpaina honetara.

Nola har dezakezu parte?

Emakume zientzialari bat proposatuko dizuegu saltoki bakoitzean erakutsi beharreko erreferente gisa; zuek, haren ikerketa-arloa inspirazio gisa hartuta, zuen erakusleihoa apainduko duzue. Udalak erakusleihoan jarri beharreko horma-irudi bat helaraziko dizue emakumearen irudiarekin, eta hari buruzko informazioa ere bidaliko dizue dossier txiki batean, bere ibilbidea hobeto ezagutzeko.

Irudimena, zuen esku!



Webgunea

[Ekimenaren webgunea](#), 2025eko Otsailaren 11ri eskainitako atal bat egongo da. Bertan, 2025eko kanpaina parte hartuko duten denden zerrenda eta zuek bidalitako argazkiak bilduko ditugu.

#O11Erakusleihoak ginkana

12 saltoki edo gehiagoko udalerrietan, #O11erakusleihoak ginkana publikoa jarriko dugu martxan. Telefonorako aplikazio baten bidez egiteko ginkana bat izango da. Jolasteko, parte-hartzaileek ActionBound aplikazioa deskargatu beharko dute euren mugikorretan, eta saltokietako erakusleihoetan aurkituko dituzten QR kodeak eskaneatu. Saltokiz saltoki, emakume protagonisten inguruko galderei erantzunez osatuko dute herritarrek #O11erakusleihoak ginkana.

Komunikazio-ekintzak

Ekimenaren hasieran, udalerrri bakoitzean prentsa-ohar bat bidaliko da komunikabideetara, herriko zein saltokik parte hartzen duten aipatuz eta Euskal Herrian zenbat saltoki atxiki diren jakinaraziz.

Izen-emateak

Ekimen honetan izena emateko, bete honako galdetegia:

<https://form.jotform.com/242892298876377>

Izena emateko epea: 2024ko abenduaren 22 arte.

Informatuko dizuegu emakume zientzialariaren horma-irudiak nola jasoko diren (2025eko urtarrilaren 22tik aurrera) eta otsailaren 3rako prest egon beharko du zuen erakusleihoak.

Zalantzak eta informazioa:

- Nerea Lazpiur Ibarzabal
 - merkataritza@arrasate.eus
 - 943 25 00 17
-